



EH Bildu gailendu egin zaio EAJri

Europako hauteskundeetan ere

Eskualdean, jeltzaleek baino 2.000 boto gehiago

eskuratu ditu errepubliken aldeko koalizio abertzaleak / 7



UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2019



Bergaran alkatetza berreskuratu du EH Bilduk eta EAJk eutsi egin dio Arrasaten,

Aretxabaletan eta Eskoriatzan; EH Bilduk bost herritan irabazi du eta Debagoienean

lehendik zeukan nagusitasuna handitu egin du / 2



Argazki nagusian, Bergarako EH Bilduko hautagaiak eta jarraitzaileak Gorka Artola alkategaiarekin ospatzen; argazki txikian, Arrasateko EAJkoak, batzokian, pozik lortutako garaipenarekin. IMANOL SORIANO

BOTO GEHIEN

JASO DITUZTEN

ALKATEGAIAK

ARRASATE

Maria

Ubarretxena

EAJ

BERGARA

Gorka

Artola

EH BILDU

ONATI

Izaro

Elorza

EH BILDU

ARETXABALETA

Unai

Elkoro

EAJ

ESKORIATZA

Joserra

Zubizarreta

EAJ

ANTZUOLA

Beñardo

Kortabarria

EH BILDU

ELGETA

Iraitz

Lazkano

EH BILDU

ARAMAIO

Lierni

Altuna

EH BILDU

2019

DEBAGOIENA

2015


Alderdia	Botoak	%	Zinegotziak
EH BILDU	15.629	%45,39	57
EAJ	13.646	%39,63	44
PSE-EE	2.657	%7,72	5
ELK. POD.	1.169	%3,40	1
IRABAZI	355	%1,03	0
PP	286	%0,83	0
ARRA. AU.	271	%0,79	0
ELIZATEAK	209	%0,61	1
AHAL DUG.	207	%0,60	0

- Errolda: 50.069.
- Boto emaileak: 35.105.
- Abstentzioa: %29,89.

Alderdia	Botoak	%	Zinegotziak
EH BILDU	12.933	%40,59	51
EAJ	12.458	%39,10	40
PSE-EE	2.432	%7,63	6
IRABAZI	1.707	%5,36	4
BALEIKE	1.192	%3,74	2
PP	554	%1,74	0
GU GEU	259	%0,81	4
ELIZATEAK	246	%0,77	1
LGHE	67	%0,21	5

- Errolda: 50.687.
- Boto emaileak: 32.843.
- Abstentzioa: %35,20.

GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK



2019

Alderdia	Botoak	%	Batzarkideak
EAJ	130.767	% 35,59	20
EH BILDU	116.113	% 31,60	17
PSE-EE	62.788	% 17,09	9
ELK. POD.	32.831	% 8,93	4
PP	17.303	% 4,71	1
C'S	3.686	% 1,00	0
A. ZURIAK	625	% 0,17	0

- Errolda: 558.145.
- Boto emaileak: 370.439.
- Abstentzioa: % 33,38.

2015

Alderdia	Botoak	%	Batzarkideak
EAJ	112.918	%32,03	18
EH BILDU	103.140	%29,26	17
PSE-EE	59.080	%16,76	9
AHAL DUGU	43.126	%12,23	6
PP	19.395	%5,50	1
IRABAZI	8.422	%2,39	0
C'S	5.262	%1,49	0
UPYD	1.127	%0,32	0

- Errolda: 556.267.
- Boto emaileak: 360.957.
- Abstentzioa: %35,11.

ARRASATE

AULKIAK 2019 EAJ 9. EH BILDU 8. PSE-EE 3. ELKARREKIN PODEMOS 1. ARRASATE AURRERA! 0. PP 0.
2015 EAJ 8. EH BILDU 7. PSE-EE 3. BALEIKE ARRASATE 2. IRABAZI 1. PP 0.

EAJk irabazi du, botoen ia %40 jasota; EH Bilduk ere zinegotzi bat irabazi du; sozialistak, giltzarri




EAJ
 Maria
 Ubarretxena



EAJ
 Anuska
 Ezkurra



EAJ
 Ander
 Garay



EAJ
 Miren Edurne
 Unamuno



EAJ
 Ibon
 Arrupe



EAJ
 Maitane
 Muñoz



EAJ
 Eugenio
 Uribarren



EAJ
 Amaia
 Zeziaga



EAJ
 Juan Ramon
 Mendieta



EH BILDU
 Maider
 Morras



EH BILDU
 Kepa
 Urteaga



EH BILDU
 Nerea
 Hernandez



EH BILDU
 Fernando
 Okina



EH BILDU
 Larraitz
 Trojaola



EH BILDU
 Joseba
 Ezpeleta



EH BILDU
 Ixaro
 Artola



EH BILDU
 Aitor
 Zubiaga



PSE-EE
 Oscar
 Garcia




PSE-EE
 Yoana
 Sanchez



PSE-EE
 Aritz
 Murua



ELK. POD.
 Igor
 Urizar



Maria Ubarretxena EAJ: "Gure herri proiektuan arrasatear askok sinistu dutela ikusteak asko poztzen gaitu, ostera ere eman digute euren konfiantza. Emaizta onak espero genituen, eta heldu dira".
Maider Morras EH BILDU: "2015ean baino 755 boto gehiago jaso ditugu eta eskerrak eman gura dizkiet arrasatearrei eta gurekin batera lanean izan direnei; orain, proiektua defendatzea dagokigu".
Oscar Garcia PSE-EE: "Pozik gaude; laugarren zinegotzi bat gura genuen, baina EAJren eta EH Bilduren gorakadaren aurrean eutsi egin diogu. Gobernua eratzeko giltza daukagu ostera ere".
Igor Urizar ELKARREKIN PODEMOS: "Porrot gogorra jaso dugu eta autokritika egin behar dugu, ezkerreko proiektuarekin zertan ez dugun asmatu. Proiektua berregiten hasiko gara bihar bertan".
Ramon Ugalde ARRASATE AURRERA!: "Emaizta hauek ez dute Arrasate hobetzen lagunduko. Ideiari ez duen kandidaturak irabazi du, baina lau urte daramate leku guztietan azaltzen, eta..."


BERGARA

AULKIAK 2019 EH BILDU 9. EAJ 7. PSE-EE 1. IRABAZI 0. AHAL DUGU 0.
2015 EAJ 8. EH BILDU 7. IRABAZI 1. PSE-EE 1. PP 0.

Aldaketa izan da Bergarako Udalean: EH Bilduk gehiengo osoz irabazi du, 3.987 botorekin



EH BILDU
 Gorka
 Artola



EH BILDU
 Ainhoa
 Lete



EH BILDU
 Aitor
 Arantzabal



EH BILDU
 Cristina
 Markina




EH BILDU
 Juan Luis
 Gonzalez



EH BILDU
 Nagore
 Iñurrategi




EH BILDU
 Ekaitz
 Aranberri



EH BILDU
 Itsasne
 Luarizaristi



EH BILDU
 Juanjo
 Asula



EAJ
 Elena
 Lete



EAJ
 Maite
 Agirre



EAJ
 Lander
 Arregi



EAJ
 Irune
 Galarra



EAJ
 Angel
 Murgiondo



EAJ
 Esther
 Ortiz De Zarate




EAJ
 Joseba
 Elosua



PSE-EE
 Alberto
 Alonso

NABARMEN IGO DA PARTE-HARTZEA: 2015EKO DATUEKIN ALDERATUTA %9,16 IGO DA BERGARAN

EH BILDUK 9 ZINEGOTZI IZANGO DITU; EAJ-K, 7; ETA PSE-EE-K ESERLEKU BAT LORTU DU



Gorka Artola EH BILDU: "Balarazioa oso positiboa da, uste genuena baino hobea. Nabarmendu nahi dut gobernatuko dugula herri osoarendako, ez bakarrik gure boto-emaileendako".
Elena Lete EAJ: "Eskertu nahi diegu botoa eman diguten herritarrei, nahiz eta ez den nahikoa izan irabazteko. EH Bilduk irabazi ditu hauteskundeak; ezkerreko zatituta joatea euren alde izan da".
Alberto Alonso PSE-EE: "Nik uste dut gero eta jende gehiagok bat egiten duela gurekin. Gaur, herritarrek euren desioak azaleratzeko aukera izan dute, eta hori da irten den emaitza".
Aiert Lizarralde IRABAZI: "Nahiz eta ordezkariak ez atera, pozik gaude. Parte-hartzea igotzeak eta polarizazioak ekarri ditu emaitza hauek. EAJren Gobernu autoritarioari zigorra izan da hau".
Jose Mari Sasieta AHAL DUGU-PODEMOS: "EH Bildu zoriondu nahi dugu, eurek irabazi dute eta euren da erantzukizuna orain. Ezkerreko zatituta joan izanak EH Bilduri eman dio emaitza ona".

OÑATI

AULKIAK 2019 EH BILDU 10. EAJ 7. PSE-EE 00.
2015 EH BILDU 10. EAJ 7. PSE-EE 00. PP 00.

Gobernuan ez da aldaketarik izango: EH Bilduk hamar eserleku lortu ditu eta EAJk, zazpi



EH BILDU
Izaro Elorza



EH BILDU
Xabier Igartua



EH BILDU
Anik Zubizarreta



EH BILDU
Iñaki Olalde



EH BILDU
Maite Anton



EH BILDU
Iker Oñate



EH BILDU
Susana Altuna



EH BILDU
Bixente Urrutia



EH BILDU
Alaitz Kortabarria



EH BILDU
Asier Iraeta



EAJ
Ainhoa Galdos



EAJ
Andoni Altuna



EAJ
Amaia Erostarbe



EAJ
Jon Kepa Gerrikagoitia



EAJ
Marijo Etxegoien




EAJ
Nerea Altube



EAJ
Angel Biain

EH BILDUK BOTOETAN GORA EGIN DU ETA EAJ-K, EHUN ETA HAMASEI BOTO GALDU DITU

PARTE-HARTZEAK GORA EGIN DU ETA MAHAI GUZTIETAN IZAN DA GARAILE EH BILDU



Izaro Elorza EH BILDU: "Oso balorazio positiboa egiten dugu. Parte-hartzeak gora egin du, eta, zinegotzi kopuru bera lortu dugun arren, botoetan gora egin dugu nabarmen. 2011ko hauteskundeetan moduan, mahai guztietan irabazi dugu. Oso-oso pozik gaude lortutako emaitzekin".

Ainhoa Galdos EAJ: "Lasai eta pozik nago emaitzekin, herritarren babesa izan dugulako eta aurrez genuen zinegotzi kopurua mantentzea lortu dugulako. Lanerako gogoz eta ilusioz gaude eta EH Bildurekin elkarlanean jarduteko prest izango gara".

ARETXABALETA

AULKIAK 2019 EAJ 7. EH BILDU 6. PSE-EE 0. ELKARREKIN PODEMOS 0. PP 0.
2015 EAJ 6. EH BILDU 5. IRABAZI 1. PSE-EE 1.

EAJ nagusi izan da boto kopuru handiarekin, eta EH Bildu atzetik, biek zinegotzi bana irabazita



EAJ
Unai Elkoro



EAJ
Karmele Uribarri



EAJ
Xabier Otxoa



EAJ
Ainhoa Cabero



EAJ
Koldo Zubillaga



EAJ
Alex Seiler



EAJ
Pili Leanizbarrutia



EH BILDU
Ion Albizu



EH BILDU
Jasone Garcia-Etxabe



EH BILDU
Mikel Uribeetxebarria



EH BILDU
Ione Ojea



EH BILDU
Gorka Gabilondo




EH BILDU
Irati Pagoaga

PARTE-HARTZEA %70,75 IZAN DA; 3,21 PUNTU EGIN DU GORA 2015AREKIN ALDERATUTA

GORA EGIN DUTE BOTO KOPURUAN BI ALDERDI NAGUSIEK, EAJ-K (210) ETA EH BILDU-K (120)

ELKARREKIN PODEMOSEK ETA PSE-EE-K GALDU EGIN DITUZTE BOTOAK

UDALBATZA BI ALDERDIK BAKARRIK OSATUKO DUTE, SEKULA GERTATU EZ DENA



Unai Elkoro EAJ: "Oso pozik gaude emaitzekin, 1.800 boto baino gehiago jaso ditugu, eta halakorik ez dugu lortu azken urteotako hauteskundeetan".

Ion Albizu EH BILDU: "1.500 botoren langa [2011n Bilduk lortutakoa] pasatu dugu, eta horrekin pozik, baina herritarrek boto baliagarriaren alde egin dute. Bi alderdi bakarrik egotea Udalean pena da".

Miren Lorea Lana PSE-EE: "36 boto baliogabe jaso ditut, hutsegite bat dela-eta beste herri bateko boto-paperak banatu zirelako gure kartazaleetan. Atarian geratu naiz eta pena handia dut".

Rafa Bernal ELKARREKIN PODEMOS: "Harritu egin gaitu EAJk hainbeste igo izanak. Demokraziarentzat ez da ona alderdi-bitasun hau. Oposiziotik ere ezingo dugu eragin; horrek penatzen gaitu".

ESKORIATZA

AULKIAK 2019 EAJ 6. EH BILDU 4. ESKORIATZAKO ELIZATEAK 1. ELKARREKIN PODEMOS 0. PSE-EE 0.
2015 EAJ 5. EH BILDU 4. ESKORIATZAKO ELIZATEAK 1. IRABAZI 1. PSE-EE 0.

Alderdi jeltzalea garaile, eta Joserra Zubizarretak jarraituko du Eskoriatzako alkate izaten


EAJ
Joserra
ZubizarretaEAJ
Maite
UribeEAJ
Antonio
RegañoEAJ
Puri
RegidorEAJ
Josu
EzkurdiaEAJ
Ana Belen
de CastroEH BILDU
Eluska
IrazuEH BILDU
Nestor
AranaEH BILDU
Dorleta
SologaitoaEH BILDU
Ander
ErrarteELIZATEAK
Iñaki
Kerexeta

SEI ZINEGOTZIREKIN
GEHIENGO OSOA
IZANGO DU
ESKORIATZAKO
EAJ-K UDALEAN

ELKARREKIN
PODEMOS ETA
PSE-EE ALDERDIEK
EZ DUTE
ESERLEKURIK LORTU

2015EKO
HAUTESKUNDEETAN
BAINO 210 BOTO
GEHIAGO JASO DITU
ALDERDI JELTZALEAK

BOTO KOPURUAN
GORA EGIN ARREN,
EZ DU ZINEGOTZI
KOPURUA HANDITU
EH BILDUK



Joserra Zubizarreta EAJ: "Ikaragarritzko emaitza da, eta herritarrei eskerrak emateko moduan gaude. Aurreikusten genuen emaitza ona, baina ez halakoa... pozez zorutzen nago".

Eluska Irazu EH BILDU: "Politikan sartzen naizen lehen aldia da, berria niretzat, eta emaitzekin pozik gaude. Parte-hartzean gora egin dugu, eta horrek aurrera egiteko gogo handiagoa ematen digu".

Iñaki Kerexeta ESKORIATZAKO ELIZATEAK: "Urtero moduan, zinegotzi bat lortu dugu, nahiz eta boto gutxiago jaso ditugun hauteskunde hauetan. Hala ere, helburua beteta, pozik gaude".

Salva Gonzalez ELKARREKIN PODEMOS: "Ez da harritzeko emaitza izan. Hemen, borroka EH Bilduren eta EAJren artekoa zen. Gainera, ez naiz eskoriatzarra, eta horrek eragin egiten du".

ANTZUOLA

AULKIAK 2019 EH BILDU 7. EAJ 3. PSE-EE 1.
2015 EH BILDU 7. EAJ 3. PSE-EE 1.

Ez da aldaketarik izan, eta EH Bilduk, EAJk eta PSE-EEK zinegotzi kopurua mantenduko dute


EH BILDU
Beñardo
KortabarriaEH BILDU
Garazi
LarreaEH BILDU
Mikel
BargielaEH BILDU
Josune
MartinezEH BILDU
Hodei
ArangurenEH BILDU
Jon
ArangurenEH BILDU
Puri
ArregiEAJ
Basili
OrmazabalEAJ
Aitor
UrrutiaEAJ
Miren
ElgarrestaPSE-EE
Miren
Gallastegi

EH BILDUK ZITUEN
ZAZPI ZINEGOTZIAK
MANTENDUKO DITU,
BOTOEN %57,27
LORTUTA

EAJ-K GORA EGIN
DU BOTOETAN,
BAINA EZIN IZAN DU
LAUGARREN
ZINEGOTZIA LORTU

102 BOTOAREKIN,
UDALBATZAN ZUEN
ZINEGOTZI BAKARRA
MANTENTZEA LORTU
DU PSE-EE-K

HERRITARREN
PARTE-HARTZEA
%74,74 IZAN DA ETA
ABSTENTZIOA,
%25,26



Beñardo Kortabarria EH BILDU: "Duela lau urteko emaitzak lortu ditugu, gutxi gorabehera, eta oso pozik gaude. Lau urteko epean herritarrek dituzten itxaropenei eustea lortu dugula uste dut".

Basili Ormazabal EAJ: "Laugarren zinegotzia ateratzeko esperantza genuen, eta 24 botoarengatik ez dugu lortu. Positiboki baloratzen dugu boto kopurua areagotu izana".

Miren Gallastegi PSE-EE: "Zinegotzia mantentzea lortu dugu, eta pozik gaude horregatik. Horrez gain, botoetan gora egin dugu eta prest gaude antzularrendako lan egiteko".



ELGETA

AULKIAK 2019 EH BILDU 6. EAJ 3. PSE-EE 0.
2015 EH BILDU 5. GU GEU ELGETA 4. PSE-EE 0.

Iraitz Lazkanok jarraituko du alkate, eta aurreko agintaldian baino zinegotzi bat gehiagorekin



EH BILDU
Iraitz
Lazkanok



EH BILDU
Ane
Bilbao



EH BILDU
Sebastian
Arantzabal



EH BILDU
Garbiñe
Irazabal



EH BILDU
Ibai
Larrañaga



EH BILDU
Ibai
Etxaniz



EAJ
Aintzane
Oiarbide



EAJ
Irune
Berasaluze




EAJ
Josu
Leturia

412 BOTO JASO
DITU ELGETAKO EH
BILDUK UDAL
HAUTESKUNDEETAN,
ETA EAJ-K 205

UDALBATZA
BERRIAN SEI
ZINEGOTZI IZANGO
DITU EH BILDUK, ETA
HIRU EAJ-K

HAUTAGAITZA
SOZIALISTAK 13
BOTO JASO DITU ETA
EZ DU IZANGO
ORDEZKARITZARIK

FORU ZEIN EUROPAR
HAUTESKUNDEETAN
ERE EH BILDU
NAGUSITU DA
ELGETAN



Iraitz Lazkanok Garitaonandia EH BILDU: "Emaizta historikoa izan da Elgetan; izan ere, gainditu egin dugu boto gehien jaso izan duen hautagaitzaren emaitza. Eskerrak eman nahi dizkiegu guregan konfiantza ipini duten herritar guztiei. Gogor egingo dugu lan Elgeta hobetzen jarraitzeko".

Aintzane Oiarbide Iruretagoiena EAJ: "Lehenengo eta behin, EH Bildu zoriondu nahi dut. Eskerrak ere eman nahi ditut; bai EAJko zerrendako kideei, egindako lanarengatik, bai gure aukera egin duten herritarrei. EAJ berriz sartu da Elgetako Udalean, eta bere lana egingo du. Oposizio sendoa egingo dugu, Gobernua kontrolatuko dugu, eta proposamenak egingo ditugu".

ARAMAIO

AULKIAK 2019 EH BILDU 7. EAJ 2. PSE-EE 0. PP 0.
2015 EH BILDU 6. EAJ 3. PSE-EE 0. PP 0.

Botoen %70 lortuta eta zituenak baino zinegotzi bat gehiagorekin irabazi du EH Bilduk



EH BILDU
Lierni
Altuna



EH BILDU
Santiago
Balantzategi



EH BILDU
Ana Maria
Martiarena



EH BILDU
Iban
Herrarte



EH BILDU
Gorka
Astondoa



EH BILDU
Kristina
Etxenautia



EH BILDU
Oihana
Ameskua



EAJ
Pedro
Elozegi




EAJ
Juan Antonio
Peña

BI PUNTU PASATXO
IGO DA EH BILDUREN
EHUNEKOA, ETA
BESTE HAINBESTE
JAITSI EAJ-RENA

KOALIZIO
ABERTZALEAK ETA
JELTZALEEK
OSATUKO DUTE
BERRIZ UDALBATZA

BOTO ZURI KOPURUA
UDALERA KO
HAUTESKUNDEETAN
IZAN DA HANDIENA,
NABARMEN: 26

PARTE-HARTZEAK IA
PUNTU BAT EGIN DU
GORA,
2015EKOAREKIN
ALDERATUTA



Lierni Altuna EH BILDU: "Oso pozik gaude emaitzarekin. Zinegotzi bat gehiago lortu dugu; talde polita gara. Eskerrak eman behar ditugu guran sinistearren. Lanean jarraituko dugu, orain arte moduan. Herria herritarrok ezagutzen dugu; kanpotik etor zaitezke intentzio onenarekin, baina hori gure alde izan dugu. Azken agintaldietan lan handia egin dugu, eta hori ere babestu du jendeak".

Pedro Elozegi EAJ: "Zinegotzi bat galdu dugu, baina pozik gaude, hala ere. Agintaldi berrian, gure proiektua mahaiaren gainean jarriko dugu, eta herriaren alde lanean jarraituko dugu, zinegotzi gehiago edo gutxiago izango bagenu bezala, berdin-berdin. Aramaioarrek erabaki dituzte emaitzak; erabaki dute zazpi eserleku ematea EH Bilduri eta Lierni Altuna alkate izatea. Zorionak eurei!".



GIPUZKOA

MARIA AGIRRE KAZETARIA

"Jarraikortasunaren aldeko apustua"

Gipuzkoarren gehiengoak jarraikortasunaren aldeko apustua egin du. Bazirudien EH Bildurekin lehia es-tuagoa egongo zela, baina arnasa lasai hartzeko moduko emaitzak lortu dituzte jeltzaleek, azkenean.

EAJren eta PSEren arteko itunak oinarri sendoa du Gipuzkoan.


Donostiako Udalean, bestalde, zalantzarik gabe, Eneko Goiaren ga-raipena erabatekoa izan da, baina txanponaren beste aldean PSE-EEko

Ernesto Gascoren izena ageri da: argi eta garbi, Gascoren asmo eszentrikoei donostiarrek bizkarra eman diete. Alegia, Kontxako pasealekua zula-tzeko proiektua aurkeztea ez da oso ideia ona izan.

Donostia Zinegotziak

EAJ	10
EH BILDU	6
PSE-EE	5
PP	3
ELK. PODEMOS	3
GUZTIRA	27

Batzar Nagusiak Aulkiak



ARABA

FELIX IRIARTE KAZETARIA

"EAJ eta PSE-EE dira garaile nagusiak, eta PP galtzailea"

Bi irabazle utzi dituzte hauteskunde hauek Araban, Felix Iriarte kazetaria-ren hitzetan. "Batetik, EAJ. Batzar Nagusietan aldea areagotu egin du eta berriro gobernatzeko arazorik ez du izango, sozialistekin batera. Gas-


teizko Udalean ere nagusitu egin da. Bestetik, PSE-EE. Inork ez zuen es-
pero Udalean bigarren indarra izatea, eta Batzar Nagusietan ere emaitza onak lortu dituzte. Pozik egoteko mo-
duan daude". Txanponaren ifrentzuan

PP dagoela dio. "Oso alderdi garran-tzitsua izan da Araban, eta laugarren alderdi bilakatu da orain". EH Bilduri dagokionez, emaitza hobeak espero zituztela dio. "Kolpe latza izan da Udalean hirugarren geratzea".

Gasteiz Zinegotziak

EAJ	7
PSE-EE	6
EH BILDU	6
PP	5
ELK. PODEMOS	3
GUZTIRA	27

Batzar Nagusiak Aulkiak



BIZKAIA

AITOR ABAROA KAZETARIA

"EAJk bere indargunea berretsi du"

Bai Bizkaian eta baita Bilbon ere EAJk indartsu jarraitzen du. Bietan boto gehiago lortu ditu, eta baita ordezkari gehiago ere: Batzar Nagusietan bi eserleku gehiago eta Udalean zinegotzi bat. Era berean, gehiengo ab-


solututik oso gertu geratu da. Horrek guztiorrek esan gura du PSE-EEren laguntzarekin eroso gobernatuko due-la bi erakunde horietan. Hori horrela, sozialistak ere indartsu atera direla esango nuke.

EH Bilduri dagokionez, esan behar da Galdakaon eta Durangon alkatetza lortzeko aukerak izango dituela. Igoe-ra nabarmenik ez du lortu. Hala ere, bigarren indarra izaten jarraitzen du Bizkaian, eta hirugarrena Bilbon.

Bilbo Zinegotziak

EAJ	14
PSE-EE	5
EH BILDU	4
ELK. PODEMOS	3
PP	3
GUZTIRA	29

Batzar Nagusiak Aulkiak



NAFARROA

MARIJO DEOGRACIAS KAZETARIA

"Oso gutxi iraun du aldaketaren Gobernuak"

Iruñeko Udalean, bederen, ez dago ezer egiterik aldaketaren Gobernuak jarrai dezan, eta Nafarroako Gobernuan ere galdutzat ematen dut, zenbakiek ez dute ematen. Sozialistek berriro bigarren indarra izatea lortu dute eta,

aldiz, laukotea osatzen duten lau alderdietatik bik galdu dituzte botoak; batez ere, Podemosek, 2015ean bai-no bost eserleku gutxiago lortu baititu.


Navarra Sumak eskuina batzea lor-tu du eta Parlamentuan nabarmen igo

du ordezkaritza. Dena den, ez du gehiengo osorik eta sozialistek eraba-ki beharko dute historikoki beti egin duten bezala eskuinaren alde edo, aukera matematiko arraroez baliatuz, Gobernu ezberdin baten alde egin.

Iruñea Zinegotziak

NA+	13
EH BILDU	7
PSN-PSOE	5
GEROA BAI	2
GUZTIRA	27

Parlamentua Aulkiak



goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goizatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Irene Osinaga.

Maketazioa
Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.
Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Gertu Komunikaziobide SL
—
GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Udaletarako boto joera mantendu egin da Batzar Nagusietan

Josu Bilbao DEBAGOIENA

Debagoieneko boto emaleek euren boto joera mantendu egin dutela esan daiteke, aldaketa oso gutxi izan baita udal hauteskundeetatik Gipuzkoako foru hauteskundeetara. Aipatzekoa da EH Bilduk udal hauteskundeetan 752 boto gehiago izan dituela Gipuzkoako Batzar Nagusikoetan baino. Hala ere, bi hauteskundeetan alderdi bozkatuena izan da bailaran.

EAJko boto emaleen joera izan da alderdi guztietatik gehien mantendu dena bi hauteskundeetan. Izan ere, foru hauteskundeetan, 163 boto gutxiago izan ditu alderdi jeltzaleak.

Bestalde, Debagoieneko hainbat herritan zerrendarik aurkeztu ez duten alderdiek gorakada izan dute Batzar Nagusietarako boto kopuruan. Horrela, Elkarrekin Podemosek 855 boto gehiago lortu ditu, PSE-EEk 610 boto gehiago eta PPk 387 boto gehiago.

Aipatu behar da, era berean, Leintz Gatzagako botoak Gipuzkoako Foru Aldundikoetara gehitu egin direla, baina gatzagarrek ez dutela udal hauteskundeetarako botorik eman, ez baita zerrendarik aurkeztu.



EH Bilduko kideak, Donostian. EH BILDU



EAJko kideak, Donostian. EAJ


DEBAGOIENENKO EMAITZAK

Alderdia	Udala	Batzar Nagusiak	ALDEA
EH BILDU	15.629	14.877	- 752
EAJ	13.646	13.483	- 163
PSE-EE	2.657	3.267	+ 610
ELK. PODEMOS	1.524	2.379	+ 855
PP	286	673	+ 387

OHARRA: IRABAZI ETA AHAL DUGU-REN BOTOAK BATU DITUGU ELKARREKIN PODEMOS-EN ITURRIA: GOIENA



GIPUZKOA
Mikel Biain
EH BILDU



GIPUZKOA
Aintzane Oiartzabal
EAJ



GIPUZKOA
Aitor Arantzabal
EH BILDU



ARABA
Pedro Elosegui
EAJ



ARABA
Izaskun Moia
EAJ



NAFARROA
Koldo Martinez
GEROA BAI



NAFARROA
Ainhoa Aznarez
PODEMOS

Bost debagoiendar batzarkide, eta beste bi parlamentari

Eneko Azurmendi ARRASATE

Gipuzkoako Batzar Nagusietan hiru batzarkide debagoiendar egongo dira datozen lau urteetan. Mikel Biain oñatiarra eta Aitor Arantzabal bergararra izango dira EH Bilduko ordezkariak; eta Bergaran bizi den Aintzane

Oiartzabal erreteriarra, berriz, EAJkoa.

Arabako Batzar Nagusiei dagokienez, Izaskun Moia oñatiarra EAJko batzarkide izango da, eta baita Pedro Elosegui gasteiztarra ere, gaur egun Arabako Batzar Nagusietako presi-

dentea dena eta aurrerantzean Aramaioko zinegotzi izango dena.

Nafarroan, bi diputatu

Nafarroako Parlamentuan bi debagoiendar izango dira berriro. Koldo Martinez eskoriatzarra, egun Geroa Bairen bozeramailea ere badena Parlamentuan, eta Elkarrekin Podemoseko Ainhoa Aznarez antzuolarra, Parlamen-

DEBAGOIENA

EH BILDU	14.158	(%41,04)
EAJ	11.905	(%34,51)
PSE-EE	3.875	(%11,23)
ELK. PODEMOS	2.787	(%8,08)
PP	685	(%1,99)
CS	298	(%0,86)
ALTERNATIVA	176	(%0,51)
JUNTS	147	(%0,43)
PACMA	132	(%0,38)
VOX	77	(%0,22)

Errolda: 50.219.

Boto emaleak: 34.892.

Abstentzioa: %30,52.

Baliogabeak: 181 (0,36).

Zuriak: 210 (0,41).

Debagoiengan alde mantendu du EH Bilduk; Gipuzkoan, galdu

Julen Iriondo ARRASATE

Parte-hartzean izandako gorakada handia izan da aurreneko datu adierazgarria Europako hauteskundeetan. Aldundirako eta udaletarako hauteskundeekin batera ospatu izanak ekarri du, bereziki, abstentzioa nabarmen txikitu izana, 2014ko %58,65etik aurtengo %34ra.

Gipuzkoan bezala Debagoiengan, EH Bildu eta EAJ izan dira alderdi bozkatuenak, hiru-garrenarekiko alde handiarekin. Baina joerak desberdinak izan dira batean eta bestean: Deba-

goiengan 2.000tik gorako alde mantentzen du EH Bilduk EAJrekiko -ehunekotan, hala ere, EH Bildu mantendu egin da, eta EAJ ia bost puntu hazi-; Gipuzkoan, berriz, boto kopurua ia bikoiztu eta alderdi bozkatuena bilakatu da EAJ, 2014an EH Bilduk baino ia 16.000 boto gutxiago lortu zituen arren.

Espainian hauek izan dira emaitzak -eserlekuak; 54 denek: PSOE, 20; PPk, 12; Ciudadanosek, 7; Podemosek, 6; Voxek, 3; Orain Errepublikak-ek, 3; Juntsek, 2; Ceusek, 1.

GIPUZKOA

2019

Alderdia	Botoak	%
EAJ	112.062	%30,60
EH BILDU	109.836	%29,99
PSOE	66.508	%18,16
ELK. POD.	37.373	%10,20
PP	15.844	%4,32
C'S	8.370	%2,28
VOX	3.215	%0,87
PACMA	2.630	%0,71

• **Errolda:** 557.659.
• **Boto emaleak:** 368.367.
• **Abstentzioa:** %34,00.

2014

Alderdia	Botoak	%
EH BILDU	74.004	%31,69
EAJ	58.228	%24,93
PSE	32.442	%13,89
PP	18.837	%8,07
PODEMOS	15.179	%6,50
IU-UPEC	11.866	%5,08
UPYD	7.061	%3,02
EQUO	2.981	%1,28

• **Errolda:** 578.726.
• **Boto emaleak:** 239.318.
• **Abstentzioa:** %58,65.

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA



MIKEL IRIZAR

Bi aldaketa esanguratsu

Lehia gurutzatuan aldaketa handia egon zitekeen, baina jarraikortasuna nagusitu da. Gobernuetan zeuden alderdiek orokorrean eutsi egin diote gobernatzen jarraitzeko aukerari. Iraultza handirik ez, tokirik beroenetan: ez Gipuzkoan, ezta Araban edo Gasteizen. Are gutxiago toki hotzagoetan; Bizkaia kasu.

Bi aldaketa bai nabarmendu behar dira: Bergarakoa eta Nafarroakoa. Debagoienean alkatetzan zeuden alderdiek aginte makilak gorde egin dituzte, Bergaran salbu. Hemen alde handiz nagusitu da EH Bildu, gehiengo osoa lortzeraino. Eta bailarako beste herriak ikusita, esan daiteke ez dela sigla kontua izan.

Nafarroan, berriz, aldaketa erori egin da; neurri batean, arerioek asmatu dutelako, baina baita beraien erruz ere. Posible da, baina miraria litzateke PSNk lideratzea aldaketaren bertsio apaldu bat, Navarra Suma eta EH Bildu mutur banatan utzita. Hori ez bada, egurra dator bueltan.

Udal berriei eskaera: ez jolas egin gobernu eta oposizio plantan; banatu lanak eta kolaboratu zuen artean, herritarren mesedetan.



Izaskun Aldanondo, Paula Ibabe eta Laia Polo, eskuetan botoak dituztela, atzo goizean, Oñatin. MIREN ARREGI

Hitzordu baten bueltan, hiru belaunaldi batera

Botoa eman ahal izan duen bigarren aldia zuen atzokoa Laia Polo oñatiarrak. Izaskun Aldanondo amarekin eta Paula Ibabe amamarekin egin du hauteslekurako bidea, lasai eta pozik, azkenean "bere ekarpena" egin ahal izan duelako

Miren Arregi OÑATI

Hiru belaunaldi elkarrekin. Ahal izan duten guztietan botoa emateko aukerari ukorik egin ez dioten hiru emakume. Gazteenak, 18 urte bete berri, duela hilabeteke Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan eman zuen lehen aldiz. Atzo egin zuen, bigarren bez. "Ez dut zalantzarik izan. Kuadrillako gehienek emango dute bo-

toa, garrantzitsua iruditzen zait", dio. Amamaren ondoan iritsi zen hauteslekura, 90 urte dituen Paula Ibaberekin. Azken honek ere beti eman du botoa. "Beti, beti", dio, patxadaz. Hala ere, ez du gogoratzen lehenengo aldi hura, "aspaldi izan zen eta". Hirugarren emakumea Izaskun Aldanondo da, Paula Ibaberen alaba eta Laia Poloren ama. "Beti ikusi ditut



Laia Polo, botoa ematen. M.A

gurasoak hauteskunde egunean botoa ematera joaten", dio. "Eta guk ere halaxe egin dugu, beti".

Izan ere, etxean, politikaz arazo barik berba egin izan dutela aitortu dute hirurek. "Elkarriketa asko izaten ditugu, bai etxean, eta baita lagun artean ere", dio Aldanondok. Eta hauteslekura etxekoekin joate hori ohitura bilakatu dutela diote. "Zerbait naturala da, horrela egin izan dugu. Elkarrekin etortzen gara kartazala kutxan sartzera".

Lehengotik hona, aldaketa

Demokraziaren lehen urteetako giroaren eta gaur egungoaren arteko diferentziez galdetuta, orduko "zapalkuntza" eta egungo "askatasuna" datozkie burura Iaberi eta Aldanondori. "Gaur egun, askatasun handiagoa dago, eta askoz gehiago errespetatzen da", dio Aldanondok. "Lehen, katalogatuago zegoen jendea", erantsi dio alabak, hiruretan gazteenak. "Orain anonimotasuna eta errespetua handiagoa dira".

Datozinei eskaerak

Hirurek nahi luketena da dato-rrena herritarren iritzia- garrantzia emango dion taldea izatea: "Herriari galdetzea, herritarrek kontuan hartzea, ezin- besteko iruditzen zait", dio Izaskun Aldanondok. "Herri mailan adostasuna bilatu behar lukete, eta ez konfrontazioa", erantsi du.

Familia bereko hiru belaunalditako hiru emakumeek bere egin zuten atzo parte hartzeko eskubidea eta pozik zeuden horregatik: "Nire ekarpena egin dut eta pozik nago. Eta ikusi amama, 90 urte beteta ere, hemen da, gurekin". Hori esanez bukatu du Laia Polok.

HAUTESKUNDE BIHARAMUNA

GOIENA TELEBISTA, 'HEMEN DEBAGOIENA' SAIO BEREZIA

GAUR, ASTELEHENA: 18:00, 20:00 ETA 22:00.

HAUTESKUNDEEN EMAITZEN BERRI:

ANALISIAK, BALORAZIOAK ETA HERRITARREN IRITZIAK

TXOMIN MADINAK AURKEZTUTA.

goiena
Zu hemen zaude.

